

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2021eko urtarrilaren 22ko 31. zenbakiko Alkatetzaren Ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, Zigoitiko udalerriko jaien arloko diru-laguntzen deialdia egin zen 2021erako, norgehiagoka-prozeduraren bidez

BDNS (Identif.): 546149

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/546149>).

Lehenengoa. Onuradunak

Diru-laguntza hau jaso ahal izango dute Zigoitiko udalerrian legez eraturta eta erregistratuta dauden kontzejuek.

Bigarrena. Helburua

Diru-laguntzaren helburua da Zigoitiko udalerriko herrietako jaien eta/edo erromerien finantzazioan laguntzea, honako xedearekin:

- Herritarren parte-hartzea sustatzea, herrietako jaien antolakuntzan eta gozamenean.
- Bizikidetzaberastan lagunduko duten aisialdi- eta kultur-jarduerak antolatzen laguntzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Diru-laguntza horiek emateko oinarri arautzaileak 2016ko apirilaren 20an onartutako eta 2016ko ekainaren 6ko Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (64. zk.) argitaratutako herriko jaien arloko diru-laguntzak emateko ordenantza espezifikoa jasota.

Diru-laguntza horiek emateko prozedura norgehiagoka-erregimenean egingo da, aurkeztutako eskabideak erkatuz, deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera lehentasun-hurrenkera ezartzeko, eta irizpide horiek aplikatuz baloraziorik handiena lortu dutenak esleituko dira, hurrengo puntuak ezarritako mugarekin.

Laugarrena. Laguntzen zenbatekoa

Deialdi honen arabera aurkeztutako eskabideen ondorioz ematen diren laguntzak 338.434.000 aurrekontu-aplikazioari egotziko zaizkio, 2022rako aurrekontuko "udalerriko kontzejuen jaietako diru-laguntza" kontzeptuan.

Deitutako laguntzen gehieneko zenbatekoa 20.000 eurokoa da. Gehieneko zenbateko osoa zenbatetsia da, eta, beraz, diru-laguntzak emateko, ezinbestekoa da diru-laguntza emateko ebazpena ematen den unean kreditu egokia eta nahikoa egotea. 2022ko ekitaldian onartutako aurrekontu-kreditua hasieran aurreikusitako zenbatekoa baino handiagoa bada, organo kudeatzaileak erabaki ahal izango du deialdian aplikatzea ala ez, ebazpena eman aurretik dagokion gastu-espeditua izapidetu ondoren, beste deialdirik egin beharrik gabe.

Erakunde bakoitzak diruz lagundu dezakeen gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko, aurrekontu-partidaren zuzkidura zati berdinetan banatuko da eskaera-kopuruaren artean, eta ezin izango da inola ere diruz lagundu justifikatutako gastuaren ehuneko 100 baino gehiago.

Aurrekontu-partidan kreditu-soberakinik egonez gero, diruz lagundu beharreko gehieneko zenbatekoak gairitu ahal izango du partidaren zuzkidura eskaera-kopuruaren artean zati berdinetan banatuz ateratzen den zenbatekoa.

Hala ere, udal honek izapidetze berezia eman ahal izango du interes bereziko programa jakin batzuetarako, baldin eta diru-laguntzen guztizko zenbaketak ez badu inolaz ere gairitzen Zigoitiko Udalaren aurrekontu orokorreko aurrekontu-aplikazioetan helburu horietarako esleitutako zenbatekoa.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak eta justifikazioa, zazpigarren puntuak aipatzen duen dokumentazioarekin batera, aurkezteko gehieneko epea 2021eko abenduaren 30a izango da.

Seigarrena. Bestelako datuak

Eskaerarekin batera ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

– Eskabide ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.

– Diruz lagundutako jarduera egiteagatik sortutako gastuen egiaztagiriak: fakturak edo froga-balioa eta baliokidea duten kontabilitate-dokumentuak: jatorrizkoak edo fotokopia konpulsatuak.

Gastuen justifikazio gisa ez dira onartuko honako datu hauek argi identifikatuta ez dituzten ordainagiriak, fakturak, tiketak eta abar:

Igorlearen izena edo izen soziala, eta NANA edo IFZa.

Hartzailearen izen soziala eta IFZ (dirulaguntzaren onuraduna den erakundea izan behar da).

Gastuaren helburua.

Data.

BEZ:

IVA: aplikatutako zerga mota(k).

Programen aleak. Bertan, Zigoitiko Udalaren babesletzaren aipamena egin beharko da.

Ondategin, 2021eko urtarrilaren 26an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA